

**Luis Jauregi, *Jautarkol***

**IPUIAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria:

<http://www.armiarma.com/emailuak/itxaropena/jaut.htm>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=290>

Nere anai maite-maite Esteban ta Modesto: Zueri eskeintzen dizuet nere liburutxo au, biotz-biotzez eta gogo osoz eskeñi ere.

Mexico'ko lurralde oietan ainbeste urtez bizi zera-ten-arren, oraindik zuen ezpañetan ezpaizazute il, gure amatxo laztanak magalean artuta, maite-besarka sutsuz eta muxu goxoz, erakutsi zigun izketa ezta.

Legorrez ta itxasoz, uso maitalearen gisan, egan dijoakizuten nere liburutxo au zuen eskuetara eltzen danean, bere orrialdeetan bizitza-dardara ezti-goxo bat nabaituko diozute, noski. Gure ama zanak betiko bizitzatik, Zerutik alegia, itz-egiten dizutela usteko dezute-ta. Berak erakutsi zizkigun itzak, esaera jatorrak eta jarrai-bide zuzenak besterik eztituzute nere lantxo ontan topatuko. Aren biotz maitalearen oyar-tzuna dezute. Izango al-zaizute aren erakutsi zeruta-rreren oroigarri ere. Auxe opa dizute biotzez zuen anai,

LUIX'EK

# Itz-Aurre-Gisan

Agur, Irakurle: Ainbestexe urteen ondoren, banatorkizu berriro. *Kontu-kontari* etorri ere. Eginkizun jatorra apaiz batentzat -diazuke zure baitan. Ara, ba: batere lotsakizunik gabe natorkizu oraingoan, beintzat. Pulpituan apaizak ainbat egi mardul, esango baidizkitzute nere aitonak, Erramon gudariak eta Joxepantoni amonatxoak.

Euskera erraza erabiltzen alegindu naizaizu. Alare, zure errian esaten ez dituzuten itz bat edo beste arkituko dezu. Liburu guzietan, -euskerazkoetan bezela erderazkoetan ere-, gertatuko zaizu orixe. Ekin irakurtzen bai, eta gero ta errezago irakurtzen dezunaz jabetuko zera. Nekerik gabe ezin liteke ezer ikasi, ta ikasi gabe, ezin zerbait jakin.

Nere liburutxo ontako lenengo ta bigarren ipuiak, 1924'garren urtean, argitaratuak ditut, Intza'r Damaso Aita Kaputxino euskal jakintsuaren itz-aurre maitekor batekin. Nereganako maitasunak esan-erazi zizkion beste goralpen askotxoren artean, auxe zion orduan Damaso Aitak:

"Or dezu, ba, euskalduna, gure euskal-iturriak ematen duten urik garbienetakoak. Euskera garbi, baño erraza. Euskal-esanera berarizkoa ta erritarra; baño irudimen bizi ta sutsuak biziaz betea".

*Ipuiak* zeritzan nere liburutxo ua, aspalditik agorturik zegon, eta ba-ziran gure artean, berriro beren eskuetan ikusteko irrikitzen zeudenak. Ona, ba, emen, orraztu ta txukunduta, lengokoaren antzeko, baña dotorego, ta soñeko berriaz jantzita, zar-zimurrik gabe, zearo gaztetuta. *Erein maitasunez* ipuiaren orde, *Andre Joxepantonirena* damaitzut oraingo liburutxo ontan. Au nik asmatua baita, ta beste ua erderatik euskeratutakoa baizan. Beraz, gaurko iru ipui auek, nereak dituzu, *Urka-Mendi*'ren gaia Arakistain'-renarengandik artutakoa ba-da ere.

Nere iru lantxo auek atsegin ba'zaizkitzu, berriro ere, beste auen antzeko batzuekin etorri natzakizuke. Euskaldun guzien artean gure Euskera gaxoaganako maitasuna zabaltzea baita nere gogorik biziena. Euskera euskaldun guziena da, ta Jaungoikoak Euskal- -Erriari eman zion mesederik aundienetakoa. Euskaren eriotzik ez du Jaungoikoak nai, Berak eman zigun izkera ederra euskaldun guztien ezpañetan erabiltzen ikusi nai du. «Euskerak burua jasotzea, Jaungoikoak

nai du» utzi zigun idatzita Aita jesuita Kardaberaz santuak. Beraz, gure izkuntza garbia iltzen ba'zaigu, euskaldunen erruz ilko da. Gañerako esameza guziak, aitzaki lotzagarriak besterik ez dituzu. Euskaldunak nai ba'degu, Euskera piztuko da, indartuko da ta mundua, mundu dan artean biziko da. Alaxe izan dedilla.

Urrestilla'n 1963'gko. azaroaren 3'an  
JAUTARKOL

# Urka-Mendi

## I

**Negua** zan eta izan ziteken negurik gorriena, bene-tan. Apalduondoren, otzaren igesi, su-ondoan laister giñan guziok. Leio-baztarrean berriketan jarduteko baño, sukaldeko babes epelean egoteko ohea zan gau ua, izan ere.

Ua zan gaua, ua...! Ekaitza txistuka, zuatzik lerdennenak jo ta ipurditik atera bearrean... Trumoi bildurgarriak, eta sukalde-barruraño sartzen zirala ziruditen tximista ikaragarriak... Ta euri jasa ta txingorra, leio ta etxeko zoko guziak astintzen...

Aitona lenengoz abiatu zan tapa-tapa sutondoan beretzat beti egon oi zan aulkitxora, antxe pipakada bat ketu ta umeei ipuitxo bat edo beste esateko asmoz. Umeak, berriz, aitona an ikusi zuten bezin laister, ipurtarindu ziran, eta jaten ari ziran taloa ta esnea, bete-bete egin zirala-ta, mai-gañean lagata, aulkitxo bana artu ta aitonaren ondoan exeri ziran.

- Gaur ipuik bai?

- Ez, umeak, gaur oera goiz-goiz, otz dago-ta.

- Ez, aitona, ez. Emen sutondoan ez dagot otzik...

Ipuitxo bat... -zioten umeak erdi-negarrez. Ta jakiña, umeak orrela jarri ezker, garaile irten oi ziran beti. Geiegi maite zituan, izan ere, bere kutuntxuok, aien kutixiak, -zuzenak ba'ziran beintzat-, ez betetzeko. Gañera, ze arrano!, berak ziona, beti gauza onen bat-edo-beste geldituko, zitzaien burutxoetan. Bere aotik etzuten ipui zatarrrik entzungo, beintzat. Dana dala, gu ere, -esan oi zuan sarritan-, orrelaxe azi ta ezi ginduzen gure aurrekoak, eta ez giñan, orratik, kristau maketsak iñoiz izatera eldu.

Ziñez, yaioa zan gure aitona kontu zaarrak esaten ez ezik, berriak asmatu ta antolatzen ere. Bertsolari trebea zan, gañera, ta ez da arritzekoa, kontu-kontari edo bertsoetan asten zitzaienean, umetxoak bereala txoraturik ipintzea. Ikustekoa zan gau artako ume aien begiratu. Adi ta zur, begiak pozaren pozaz ñir-ñir, aitonari begira...!

Gogoan daukat gau artan esan zien ipuia. Gertatua dan, ala ipui utsa, eztakit. Geroztik, maiteki gorde-ta, buruan euki det, bidaztiak bide-ertzean arkitu, jaso ta liburu baten orri-aldeetan tolesturik, gorde oi duan loretxo zimela bezelaxe.



Orain, al izan detan edertasunez apainduta, bizi-tza-dardara berri batez jantzirik, zure eskuetan ipintzen det, irakurle, atsegin izango zaizulakoan, eta gure aurrekoen antziñako kontu zaarrak egin oi diguten biotz-ikutu goxoa zure biotz-mamian somatuko dezulakoan.

## II

**Gipuzkoa'ko** Deba erri pollitaren inguruko gaztelu ta basetxe aberats batean gertatu omen zan. Orain urte askotxo dirala, noski.

«Artadi-gaztelua» deitzen zioten batzuek, «Jauregi-berri» baserria bestetzuek. Dana dala, izen biok ondo baño obeto zetozkion, aitonak zionez. Batetik, aritz eta arte sendo, ugaridun toki alaitsuan zegolako, gaztelu-antzo, tente ta lerdin, eta bestetik, nolanaiko basetxea baño, jauregi eder, berri bat zirudilako. Nik, nolabait deitu bear eta, «Jauregi-berri» izenaz aitaturko dizutet.

Ango aberastasunak, noski! Iru soro ta zelai aundi bat, etxe-inguruan, baso ta oianak, zuaitez josiak, mendian, sagardi ederrak, eta ukulluan amar bei

esnetsu bai, beren txokor ta txalekin, eta eztaikit nik zenbat olla, ollaxko ta ollanda.

Ipuaia asten detan garaian, senar-emazte ezkonberriak, morroi hi ta neskame batekin bizi dira bertan. Baña, ez dira senar-emazteok, zoriontsu; ba-dute beste zerbaiten bearra zorion izateko, ta ori gabe, etxe aundi-eder au otzik eta utsik daukatela deritzaie. Ba-dira bi urte ezkondu zirala, ta ez die oraindik Jaungoikoak eman semerik.

Amaika otoitz, eskari, ta opari ere, egin dizkiote Itziar'ko Ama maiteari! Etzien orratik luzaroan entzungor egin Ama errukitsu onek. Andik laister Jauregi-berri baserrian egundoko pestak ziran: alabatxo mardul bat jaio zan, goizeko izarra bezin ederra ta udaberriko larrosa gorriaren antzekoa.

Aien poza! Aste bete iraun omen zuten Bataio-ondoko jai ta jolasak. Antxe egun aietan bildu zan gende-pilloa, noski. Txal oso bat jan omen zuten eta sagardo-barrika bat eta bi zaragi ardo uztu ere bai.

Beren alabatxo arekin zoraturik zeuden senar-emazteok, musuka jan bear zuten bere ua. Makiña bat bider ikusi zuten bidetik zijoazten baserritarrak ama zoriontsua, aurra besoetan zuela, baserri-aurreko artadi-kerizpean! Baita amaika aldiz bidetik emaku-

meak aurtxoari pa-ematera etorri ere! Ainbesteraño maite zuten guziok ume zoragarri ua.

Bein batean, -Orrillako arratsalde eder bat zan-, ama-alabak arestian aitatutako kerizpean zeudela, andre-Muskin zeritzan sorgin ezaguna bidetik igaro zan. Ta sorgiñak ere barnean biotza euki nunbait, eta amaren magalean parrirri gozoa ezpañetan zuela lozegian aingerutxo arrek, biotzean alako kilimatxa bat egin zion noski, ta aurtxoaren bekoki legunean musutxo bat emateko asmoz berenganatu zan. Baña, arri-garria! umetxoa bat-batean, ametsetan bezela, esnatu zan eta bere eskutxoaz eta negar-malko samiñez sorgiñ-musurik nai etzuela adi-erazten zuan. Andre-Muskin begietatik su ta gar zeola jarri zan, eta arroki-ro aurtxoari begira-begira esan zion: «Madarikatua izango al den ire biotzak lenengoz maitatzen duan mutilla!».

Sorgiñak itzok esanaz batera, ega beltz aundidun saguzar bat igaro zan egaka umearen aurpegi-aurretik. Amak deadar egin zuan ikaraz, eta alabatxoa bular-gañean estu-estu laztantzen zuela, etxean sartu zan. Sorgin gaiztoak, ostera parrez eta algaraz, bere bideari eman zion.

Orduantxe eguzkiak mendi-tartetik azken-izpiatz argitzen zuan Jauregi-berri basetxea; txoriak txio-txio-ka beren kabietara zetozen... Ortze urdiñean poliki-poliki izarrak agertzen asi ziran, eta azkenez udaberriko gau eder batek, illunez ta ixiltasunez estali zuan lozorroan zetzan ludia.

Baña, gau artan Jauregi-berri-ingurutik igaro izan ba'ziñan, ene irakurle maite ori, ume-negarrik ugari entzungo zenituan, bertan ume bakar bat besterik izan ez-arren. Ua gaua, gau ura! Ez zaio belakoan aztuko amari. Antxe gau osoan, aurtxoaren seaska-alboan, seaskari eragin eta lo-abestiak kanta ta kanta:

«Aurtxuo, egik lotxo bat,  
emango diat goxoa:  
aitak bat eta amak bi  
ta Goiko Jauna'k amabi.  
Lo...! »

«Lotxu eginda lotxua gozo,  
lotxu eginda kalera...  
Tanbolintxua kalean dago  
umetxu oni begira,  
tanbolintxua kalean dago

umetxu oni begira.

Lo..! Lo..! »

«Itsasoa laño dago  
Bayona'ko alderaño,  
nik zu zaitut maiteago  
txoriak beren umeak baño.

Gure oroiz aita dago  
lañopean gaberaño,  
nik zu zaitut maiteago  
arraitxoak ura baño».

Baña dana alperrik. Loak iges-zegian aurtxoaren begietatik. Goiz-aldera, egunsentian, eguzkia menditontorrak argitzen asi zanean, loak bere magal gozotan artu zuan aur gaxoa.



**Geroztik** emezortzi urte aundi igaro dira. Jauregi-berri'ko alabatxo ua, orain begi urdindun neskatillik lirain eta ederrena dezute. Ta geiago dana, soñez edo

gorputzez ederra bezela, gogoz edo animaz ere osaro maitagarria : benetako edertasunaren argi zerutarrak argitzen baizion biotza, eta udarako gau ozkarbietan illargiak bezela, bere begi aundi-eder aietan dirdits baizegion.

Neskatxa apala ta garbia, gurasoen esanekoa, langillea ta maratza. Itziar'ko Amaren maitale sutsua zan eta maiz juaten zitzaion laguntza-eske. Auzoko guziak ta ezagutzen zutenak orok, begirunez begira oi zioten eta neskatilla garbi ta atsegiña zalako maite zuten.

Etxe aberatseko alaba bakarra zan gañera, ta jakiña, mutil gazteen begiak lendabizi, eta begien atzetik biotzak laister, bereganatu bear. Lenengo-lenengoz Martin'ek, Olazabal baserriko mutillak bere maitasuna agertu zion. Mutil on eta langillea zan ziñez, basetxe artako bigarren semea ordea, ta ezin ezkontzara bere beso sendoetako indarra ta bere biotzeko maitasun gartsua besterik ekarri zezazkioken neskari. Olazabal basetxea, lurrez, aziendez eta diruz ondo ornitua zegon. Baña, oiek guziak, etxeko seme zarrenarentzat izango ziran. Orixe zan garai aietako oitura. Orain ere zerbait orrelako gure baserrietan egin oi da, baña, nabarmenago orduan. Eta noletan -esan dezu zure artean, noski-, bururatu zitzaion Martin'i Jauregi-

berri'ko alaba bakarrarekin ezkondu zitezela eta orrela ango etxejaun izateraño iritxi? Nolaz etzitzaion asmo ori, burugabekeri borobilla iruditu?

Polliki-polliki, irakurle, Martin'en naia, bear bezela aztertu-ezkero, ain iritxi-eziñezkoa ez dezu-ta. Etxe-aldeko mutilla zenuan, ondo azia, ederki eskolatua, lanean ikasia, mutil gazte kementsu ta ederra, bate-tik: eta bestetik, berriz, -ta onexek itxaropenik aundiena zemakion-, neskak bene-benetan maite zuan, ogei urtetan neskatilla garbi batek bere egizko senargaia maite lezaken eran.

Egia zan, izan ere: Jauregi-berri'ko alabak biotz-biotzez maite zuan Martin, eta auxe zenuan, bere biotzaren jabe izateko aukeratua, Jaungoikoak ala nai ba'zuan. Alaz ere, egunetik egunera illunago zegoen bere biotz maitalea. Aspaldian, begien aurrean odei beltz bat dakus (ikusten du) gaxoak, ekaitz-aurretik ortze edo zero goibelean agertu oi dan laño beltz bildurgarriaren antzekoa. Alper-alperrik ez ote zebillen, iñoiz mutil ura beretzat izango ez ote zan, azkenean biotzetik nai ta naiez maitasun ori uxatu bearrean arkituko ez ote zan, ta nik eztakit beste zenbat axanpa ta kezka zerabilzkian neska gaxoak bere baitan, egunaren buruan.

Ba-zuan gajoak, izan ere, biotza estutu ta illuntze-ko añakoa. Alaba ona zan, eta gurasoen esanera ez egotera, gogor zitzaion. Ama bere aldera erakarriko zukealakoan zegon. Baña, nolaz aitari bere iritzia aldatu-azi? Ez dira bi illabete oraindik aitak, etxeko gela nagusira deitu, larruzko aulki zabalean exeri-azi, ta amaren aurrean esan ziola:

- «Amak esanta zekiñat, Olazabal'ko Martin'ekin izketan sarritan ikusten autenala. Alperrikako ametsik etzan egin. Mutil ori ez den ire kideko mutilla. Ona ta zintzoa izatea ez den naiko, ire eskuaren jabe ezkontzaz izateko. Ontzako gorri asko ekarri bear ko dizkin gañera, irekin ezkondu nai duan mutillak. Orra, argi ta garbi esan. Esaion lenbailen, ik ere, orrela, Olazabal'-ko Martin jaunari».

Amaika negar samin egin du gaxoak geroztik! Au lana! Aitaren esana egin nai, biotzetik maitasun ua uxatu nai, ta ezin; mutil ua aztu nai, ta ezin iñondik ere aztu. Burruka onen garratzazuna, barnean noiz-edo noiz somatu duenak bakarrik, ezautu lezake argiro.

Egunak, ordea, aurrera zijoazen eta aitak esan ziona, mutillari aditzera ematera, etzan neska ausartzten. Ondo zekien eman bear zion naigabea, benetan



sakona izango zitzaiola, ta luzatu ta luzatu ari zan. Baña, asko luzatzerik etzeukala antz-emat, en zion. «Nere aitarekin ez dago txantxetan ibiltzerik», zion gajoak negarrez. Eta, urrutitik eta poliki asi, ta gero, argi ta garbi, ikusten zuan bezin laister esango ziola, ba, erabaki zuan.

Bitartean aita ere luzetsita zegon, Martin'en erantzupenaren berririk alabak ezpaizion ematen. «Zirtedo zart egin bearra zioke emen, -zion bere artean-; mutil ori arrapatu bear diat nik nun edo an, eta nere aotik entzun bear dizkik ederrak».

Orretarako abagune berezia ta era egokia, andik egun gutxi barru izan zuten aita-alabak.

Igande-arratsaldea zan, maiatzeko arratsalde zoragarria, baño, beroa : udaran bezelaxe, eguzkiaren musu sutsuak berotzen zuten lurra. Etzuan, orratio-kan, Martin beroak ikaratu ta Jauregi-berri'rontz jo zuan, arin-arin. Azkazalak ere izerdi patzetan zituala inguratu zan eta beeko zuaizitik begira gelditu, maitea noiz agertuko zitzaioin zai. Laister ikusi ere, base-txearen aldameneko baratzen loreei ura ematen ari zala.

- Garai onean ator, Martin, -esan zion neskak irri-parrez mutillari gerturatu zitzaion orduko.

- Zer, ba?, -darantzuo era berean mutillak.

- To... -ta landarean zintzilik zegoan larrosa gorri-mardul-usaitu bat artu, musu eman, eta mutillari eman zion.

Baño, azkar antzeman zion Martin'ek, bestetan ez bezelako zerbait bion artean gertatu zala. Zer zitekeen ezin igarri, baño, bai antzeman, neskaren begi urdiñak naigabe-lañoz lausoturik zeudela, ta zoritxarren baten eztenak, noski, biotza zulatzen ziola.

Martin erretzen zegoan, zer gerta ote zan jakin-miñez. Biotzean burruka gaitza zerabilkian. Beste egu-netako itz-jario goxo ua agortu zaie. Gaur, itz bat edo beste, gero ixil-une bat...

Zuaitz lerden baten kerizpe atsegintsuan exeri dira. Amaika bider egon dira antxe bertan, gaur baño alaiago, etorkizunaren buruauste latzak amets urdiñetan itotzen...! Itxaropen-suak, bizitza-bideko arantzak ere, lore biurtzen baizizkien:

- Gaur, bestetan baño illunago, kezkatu, topatzen aut, Martin. Berri txarren bat jaso al dek-edo?, -galdegin zion maiteki neskak.

-Bai, zerbait bai zeukanat, eta etzakiñat zer. Beti bezin alai etorri naun ire ondora, ta bi zeru urdin ditun ire begiei begiratu zienat, eta arantza bat sartu zaidan

biotz-muiñean. Juan dan aste onetan alako zerbait gertatu zaiñ iri, neska. Zergatik ez dian alik-eta laisterren aitortu gustia? Zer dala-ta, itzez estali nai den, gaxo orrek, ire begiok ain argiro desatena? Aitortu zaidan, bada, maite, orain bertan guzi-gauza...

Eta bere bi eskuetan neskatillaren eskua artu ta estutuaz, maite-miñez josirik, esan zion:

- Ez naun len bezela maite, ala? Beste norbait sartu ote den ba, len neretzako bakarrik unan biotz orretan?

Orduan neska onak barruan zerabilkian burruka gogorraren berri eman zion, aitak esan zizkion itz garratzak garbiro azaltzen zizkiolarik.

- Ori esan al din? Ez aiz i, ene kutun ori, neretzako, beraz?

- Ez dakik euk ondo, ordutik-ezkero zenbat negar samin egin diatan, biotz-barru barruan aukat-eta... Ezin bertatik uxatu aut-eta.

Eta negar ta negar zegian neska gaxoak.

- Argatik izango aiz i nerea eta ni irea izango naun betiko uxatu-eziña den-eta gure maitasuna, illezkorra den-eta. Ez den iñor izango bere sua itzaltzeko, gauza. Txukatu itzan, ba, negar-malko oiek. Ez adi orrela estutu. Ire aitarekin biok egongo gaitun gaur bai, ta

gure maitasun bizia, illezkorra adieraziko zionagu. Ire zoriona naiko din aitak, noski. Entzungo zigun, ba, ta gure naia azkenekoz beteko diñagu.

- Ta ezezkoan gelditzen ba'zaiguk? Orduan zer...?

- A...! Orduan... Orduan ere... Nai-ta-naiez i neria izango aiz.

- Bai, ote? Polliki-polliki, gizontxoa, ni bizi naiken-arteraño, beintzat.

Urdamuturra baño gorriago jarri ziran neska-mutillak itz auek entzun zituztenean. Ba-zuten lotsatzeko aña izan ere, Jauregi-berri'ko jauna ber-bera antxe begiz-begi ikusten baizuten.

-Entzun dizkiat ire azken-itxok, -jarraitu zuan irribarrez Martin'eri begira: Ederki, motell. Orrelako mutillak atsegin zaizkiak neri, bulartsuak, eragozpenen aurrean «jo ta kea» esanaz beti aurrerontz egiteko bularra dutenok, ez utsagatik uzkurtuta gelditu oitituken alako mutil gazte ollook. Ederki, Martin: egingo nitek azkenean iretzat izan baietz nere alabaren esku zuria. Entzun zaidak eta jakingo dek nere asmoa:

-Ba-dakik, eta ezpadakik jakin zak orain, nere alabaren senar egiten ba'aiz, ontzakurre pilla baten eta lur askoren jabe ere egingo aizela: gañera, jakiñan gañean egongo aizan ezkerok, nere aurrekoak, eta

neonek ere, izerdiaren izerdiz egindako ontzakurre gorriok eta lur eder oiek, utsean iñortxori emateko etzaukatela gogorik. Ez iñolaz ere: ez nauk oraindik ainbesteraño txoratu. Maitasuna ere bai, bear-bea-rrezkoa dek ezkontzarako, baña ontzakurreen dirdira ere aintzakotzat artzeko gauza deritzaidak. Augatik gure aurreko zaarrak zioteken : «Ire berdiñarekin ezkon adi, eta ondo izango aiz beti». Ara, bada, ona edo txarra, nere erabakia: Ogei ta amar eguneko epea ematen diat egun oien buruan, nere alabaren eskua artzeko lain aberaztasunen jabe egiten ba'aiz, iretzat izango dek bera. Baña, ogasunok ireganatzen ezpadi-tuk, beste baten emaztea izango dek laister. Orra, jakiñaren gañean aurrez-aurretik jarri.

Alperrik izan ziran mutillaren zergatiak, arrenak, eta neskaren antzi ta marruak ere, dana alperrik. Ua zan bere erabaki sendoa ta beteko zuan, bai ziñez.

Mutilla Jauregi-berritik aldendu zan bezin laister, bele ega luze bat basetxe-gañean egaka agertu zari. Ama-alabak deadarrari eman zioten eta etxeko zoko-rik zokoenean izkutatu ziran. Alako bildurra sartu zitzairen biotzean egazti beltzaren bat-bateko agerpe-naz. Ama batez ere, deabru beltza ber-bera begiz jo ba'lu bezelaxe, aitarenka ta otoizka asi zan: eta ez

zion emakume gaxoak gau osoan senarrari pakean utzi Muxkin sorgiñaren biraoa erantsiko ez ote zitzaion, orduan agertu zan saguzar ega beltza, ta oraingo bele ega luzea, danak nastu zizkion senarrari, tarteka-marteka bildurrez airean ziolarik:

- Ene..! Ez egitekoren bat egingo digu mutil orrek, ez degu atarramentu onik ontatik aterako...

- Lasa egon zaite, emakumea, -erantzun oi zion senarrak-, sorginkeriak besterik ez dira oiek danak-eta. Gañera, okerrenera jota ere, zer egin lezaiguke Martin'ek gure kaltean? Ni ta gure bi morroiak oñen gañean gaituzun bitartean, aienatu zaituzu zure kezka bildurti oiek, etzaigu kaltezko ezertxo ere gertatuko-eta. Zer, ba? Ez al da nere erabakia bidezkoa? Gure alaba maite duala-ta, besterik gabe, gure aberastasun guzien jabegai, lau txanponen jabe besterik ez dan mutil ori egitera, beartuak ote gaude, ala?

-Bai, gizona... Nai dezuna esango dezu zuk... Arrazoi osoa zurea izango da, bear bada. Baña... emen gauza onik ez dator. Ene bada! Iziar'ko Amak lagun gaitzala!

Emaztearen bildur-ikarok azkenean senarraren biotzean eree bildur-dardaratxoan bat ez ote zuten sortu gero? Ametsetan edo erdi-lotan, -noletan ezta-

kit-, baña, Alostorre'ko kanta zarraren alako bertso  
aiek aopean esaten somatu omen zuan beintzat  
emazteak gau artan:

Alostorrea, bai, Alostorrea,  
Alostorre'ko zurubi luzea!  
Alostorrean nengoanean  
goruetan,  
bela beltza  
kua, kua, kua, kua  
leioetan.

## IV

**Arratsaldea** zen oraindik, Martin'ek, Jauregi-berri-  
tik alde eginta, bideari laisterka eman zionean. Nora  
zijoan oartzeko, aurrera ta aurrera jo zuen. Otoitza  
bezela biraoa ere zerion aotik. Naigabeak eta asa-  
rreak ezaguera lausotu ziotela zirudian. Ua burruka  
zeraman gizajoak bere biotz-nastuan!

Ibilli ta ibilli, azkenez izerdiak eta nekeak ernetu  
zuten, eta bee leloari utzirik, bide-ertzeko arri baten  
gañean exeri zan.

-Baña, noruntz noa ni? -zion bere baitan-. Ez da au nere etxeko bidea... Ez naiz, arranopola!, gutxi ibilli. Baño... muño orrexen atzeko aldean ez dago, ba, Muskin sorgin zarraren txabola? Bai, noski. Noan bere-gana... Matazik nastuenak zuzentzen ta korapillorik estuenak askatzen trebea omen da. Berorrek zuzenduko nau arazo naspil onetan.

Eta aruntz abiatu zan ausarki. Ta, ia sorgiñaren txabolaraño eldu zanean ordea, oroipen zerutar baten argi-izpi-dirdirak bat-batean, tximistak gau illunean antzo, biotz-illunpeak urratu zizkion zeraman bidearen okerkeria ikusi-azten ziolarik; eta tximistaren-ostean, trumoi-ots ikaragarria bezela, Jaungoikozko ots auxe argiro biotz-barnean entzun zuan: «Ez zak ori egin».

Alabaña, etsai beltzari leen botzean leku geiegitxo artzen laga ziolako edo, ta berearekin irteteko seta biurriak, kate gogorrez bezela, naimena lotu ziolako noski, Jaunaren dei maitekorrari entzungor egiñaz, sorgin-txabolaren atea jo zuen.

Berealaxe iriki zan atea, eta esan ere ez liteken atsorik itxusiena jarri zitzaion gazteari begien aurrean. Ua bildurra, orduan Martiñ'ek biotz ta ezurretan somatu zuena! Ez ote zan gero, inpernuetako etsaia ber-bera, atso txima-jario, sudur-luze itxusi ua!



Atzera egin nai izan zuan, baña alperrik, berandu zan, atea, mutilla sartu bezin laister, morrolloz itxita gelditu zan-ta.

Igarri zion sorgiñak noski, mutilla bildur zala, ta amona xamur baten antzera, maitez eta zurikeriz esan zion:

- Zeren bildur aiz, gazte? Etziok iñoiz Muskin sorgiñak bere laguntza eske datorrenari kalterik egin.

Eta mutilla maitekiro eskutik arturik sutondoko aulkitxo batean exeri-azi ondoren, itza ta pitza zerio-la, jardun zuan

- Gazte, zerk erakarri ote au nere txabolaraño? Ala-bearrak edo- maitasun-min zorrotzen batek, seguru aski. Alaxe etorri oi dituk geienetan i bezelako mutil gazteak. Dana dala, aitortu zaidak esku-artean darabilkiken arlo-ori bai, ta bion artean zuzenduko, diagu, zuzen-biderik baldin ba'zaukak, beintzat. Amaika mataza nastua baño nastuagoko arazo zuzendutako andre Muskin sorgiña ni! Ta orrexegatik bein baño geiagotan gorriak ikusitakoa! Izan ere, on-egiteagatik, latzak eta beltzak ikusten bizi bear du batek mundu gaizto ontan. Baña, besteren esamesak gora-bera, bost ajola neri! Orrexeri eskerrak: bestela...

Era ontan, itz-jario goxoz eta koipekeri eztiz, ziaro limurturik eta lilluratuta laga zuan azkenerako gure mutilla atso zantar berritsu arrek. Orra, leen bildurrez uzkurturik zegoan Martin, orain pozaren pozez lerdena dariola, bere etsairik gogorrena zitzaion sorgiñaren uste osoa ipiñita! Ua atsoaren poza, gazte au Jauregi-berri'ko alabaren lenengo senargaia zala jakin zua-nean!

- Oraintxe ordainduko dizkiñat, ardi bat ere utzi gabe, aspaldiko nere zor guziak, -zion bere artean sorgiñak-. Gaiztoa, gaizto alena! Laister artuko den ire zigorra, bai ziñez. Oraintxe ezautuko den, berandu bederik, gaxo, orrek, ik ezetsi unan Muskin sorgin au, nor den jaiotzetik gorrotatzen naun ik: neonek ere, alako egun oroigarri artatikantxe, sorgin-biotz gogorrenak iñor gorrota lezaken lain, gorrotatze aut... Ez aukanat eorri nere eskuetan: ik geien-geien maite den mutilla ordea, nere mendean zeukanat. Orain arte ire maitasun unan auxe, ire lotsakizun zaikenan gaurtik.

Txerren beraren burutaldia izan zan, noski baño noskiago.

Dirua bear zuala mutillak Jauregi-berriko alabarekin ezkontzeko: gaur bertan diru oien jabe egin ziteken, nai izan ezkeru, eta erraz alare.

- Bai ote? Erakutsi zaidazu, ori irixteko bidea, arren bada, eta juango nauzu orretarako nere burua iltzeko zorian ikusi bear ba'det ere.

- Burutsu ta ausartsu jokatzen ba'dek ire eskuetan dituk gaur bertan ontzakurre gorri oiek. Neuk emango nizkikek, ba'nitu, baña beartsu arrote bat besterik ez nauk, eta ezin. Baño, ezautzen diat nik norbait ire naia bete leizakakena. Orretarako eztaukak bide bat besterik kontuz eta arreta aundiz ibilli bearrekoa, baña segurua.

Nola itz egiñ ote zion atso gaizto bezin azkarrak gure mutillari, ezta adieraztea gauza erraza. Martin, mutil on eta argia, era artaraño atzipetzeko (engañatzeko) eta alako gaiztakeriraño bultza ta eraman-azteko, itz guziak ezti ugariz eta koipekeri galantez igurtzi bearke, zituan, noski baño noskiago. Dana dala, sorgiñaren txabolatik Itziar'ko Elizaruntz jo zuan Martiñ'ek, beintzat, zuzen-zuzen.

## V

**Itziar'ko** Andre Mari'ren eleiz-atadira illuntzean eldu zan. Eleiz-abeak irikita zeuden oraindik. Ez eleizan, ez

inguruetan, iñor etzan ageri. Eleiztarrek ezpaizuan euskaldunentzat giltzik, gauez bakarrik itxi oi zuten-eta.

Eleiz-barrura sartu ta Ama Birgiñaren irudi aurrean arkitu zanean, alako bildur zerutar batek estutu zion biotza, ta etzuan, zekarren asmo gaiztoa betetzeko, bularrik izan: atzeruntz egin zuan. Izan ere, ango ixiltasun santuak ta Andre-Mari'ren begitarte xamurrak mutil kristauaren biotzean kezka bizia sortzea, ez da arritzeko. Baña, bere maite kutunaren irudia ipiñi zitzaion bat-batean begien aurrean; griña gaizto baten suzko argiak lilluratu zuan; sorgiñaren itzak bizi-bizi buruan jarri zitzaizkion, eta inpernuko indarren batek bultzatuta, noski, laisterka aldare-gañera igo, Andre-Mari'ren urrezko koro ederra artu, kolkoan al zuan bezela ezkutatu ta eleizatik atera zan. Inguruko bazterretara pixka batean begira egon zan: etzan iñor ageri, gertuan beintzat. Beraz, iñork etzuan ikusi. Ondo asi zan, bere usbez. Eta lasai-lasai, itxuraz, sorgiñak esan zion bideari ekin zion. Oso illundu arte toki ezkutu batean egon, eta laisterka bere bideari eman zion. Mendiz-mendi aurrera jo bear zuan: Itziar-aldetik urrutiratu, gau osoan jo ta jo. Gero, eguna argitzera-koan, berak jakingo zuan zer egin, eta nora jo berriz.

Ibilli ta ibilli, atsedentxo bat artzeko ustean, lurrean zetzan enbor lodi batean exeri zan. Orduantxe ari zan eguna pixkaka-pixkaka argitzen. Mendi-buruen gaiñ-gallurretan alako argi-lerrotxo bat ageri zan len-dabizi; polliki-polliki gero zabaltzen asi zan, eta azkeneko, eguzkiak, txinparta ta garra zerizkiola, bere arpegi dirdiratsua azalduz, lozarroan zirudian lurra esnatu zuan.

Orduan Martiñ'ek ere, nun zegoan ezautu zuan argiro.

- Baña nola liteke au? -zion bere artean arriturik-. Gau osoan izerdi patsetan goiak eta beak jo ditut eta oraindik ere emen arkitzen al naiz? Ametsetan ez ote nago, gero?

Eta begiak igurtzi ta igurtzi ari zan gizaxoa begien aurrean zekusana (ikusten zuana) sinistu-eziñik. Ezin, ordea, egia ukatu; mendi-gañean garra zerion eguzkia bezin argi, ikusten baizuan, Itziar-alboko, muño batean arkitzen zan: antxe aurrean zeukan Andre-Maria'ren eleiza, bertan bart egin zun lapurreta lotsagarria Itziartarrei deadarka aditzera ematen. Laister erri osoan za baldu zan berri samiña: Itziar'ko Amari burutik urrezko koroi ederra bart lapurtu diote...!

Baserritar, gizon ta mutil-gazte mordo, ederra bildu zan bereala eleiz-aurrean, eta lapurraren billa bazter guzietara sakabanatu ziran. Martiñ'ek nabaitu zuan, gizon pilloaren izkanbilla ta galduta zegoala etsi ere bai. Orduan, pekatarien Ama errukitsua degunaren altzo gozora, apalki ta negarrez jo izan ba'zuan, Pedro'k bezela, bere pekatu izugarriaren barkapena lortuko zuan, beintzat: baña, Judas'en antzera, bere gaiztakeriak barkapenik etzuala etsi zuan, noski, mutil doakabeak. Kolkoan zeraman koroiak, burni gorituak antzo, bularra erre ta kiskaltzen ziola irudi zitzaion, eta beregantik jaurti nai izan zuan: baño, alperrik, bere aragian itsatsita zeukan-eta. Lapurraren billa zetozenen zarata ta otsak gero ta urbillago naibatzen zituan. Bere burua ezkutatu-naiean igesari eman nai izan zion, eta ezin: oñak motelduta ziara, indarrik batere gabe arkitu zitun.

Larritasun artan zer egin? Estutasun artan nora jo? Bere billa zetozenen eskuetan bere burua jarri, bere gaiztakeria apalkiro aitortuaz?

Asmo illun bat sortu zitzaion orduan bat-batian... Eta pentsatu ta egin. Gerrian zeraman eunezko gerriko luzea askatu, zuaitz baten gora igo, bere lepoa ta

zuaitz-adar sendo bat gerriko-mutur banaz lotu, ta goitik-beera bota zuan bere burua.

Illotzik, zuaitzetik zintzilik, arkitu zuten Itziartarrak andik laister. Auxe izan zan Martin gaxoaren bukaera negargarria. *Urka-Mendi* izenez deitzen omen diote oraindik ere askok muñoari.

Orra, gaiztakeri bideari eman-ezkero noraño eldu liteken gizona, gaizkillea izan ez-arren, biotz-irritsak ezitzen ez ba-ditu.

Aitonak ipui au amaitu oi zuan eran, egin nai dizutet nik ere.

- Umetxoak...! Ez aaztu Martiñ'en eriotza bildurgarria. Irurogei ta bi urte aundi ba-daramazkit bizkargañean, baña, umetan, nere amona Mantoñi zanaren aotik jaso nuan-ezkero, gogoan euki izan det beti.

- Aitona, -esan zion, orduan amar urteko mutiko musu gorriak erdi-negarrez: -Beraz, Martin inpernuan erretzen dago orain, gaxoa!

- Ez dek egongo, ba?, -erantzun zion amabi urteko arrebatxo poxpoliñak: -Andre Maria'ri koroia ostu ta bere burua urkatu zian-ta.

Entzun..! -jardun zien aitonak-: azkeneko asnase-tan zegoala bere pekatu astun guziaz maite-damuz benetan damutu ezpazan, inpernuan dago seguru

baño segurugo. Guk, ordea, ez jakin ori. Jaungoikoak daki orixe. Zuek saia zaitetze beti bide onetik, zeruko bidetik ibiltzen, bai, ta etzaizute Martiñ'ena gertatuko. Ua ere, sorgiñ gaiztoarengana jo bearrean, erriko apaizarengana edota bere gurasoengana zuzen-zuzen arratsalde artan joan ba'zan, ala ilko zanik, ez det uste. Lagun gaiztoekin ez beñere ibilli, umetxo mai-teak, eta ez joan laguntza-eske sekulan oiengana. Izan beti Jaungoikoaren bildur santua, eta etxean ta eleizan ikasitako agindu zerutarrak maitasunez betetzen alegindu beti. Bide ortatik joango zerate Zerura, beti-betiko atsegiñetara.

-Amen, -erantzun genion danok, aitonaren jardun ederrari.

Orduan aitonak umetxoei musu luze bana emanaz esan zien:

- Orain lo aundia egin, eta aingerutxokin amets-egin...!



# Erramon gudaria

## I

**Etzetorren** belakuan gure mutilla. Zortzietako emen zala gaztigatu, ta bederatziak joak diralarik, agertzen ez. Etxe artako ixkanbilla ta naspilla! Nork ixillik eta geldik euki-azi gau artan umeak? Izan ene, maite zuten beren osaba Erramon gudaria!

Basetxeko leioetan ba-dago norbait zazpietatik ezkerro erriko bideari begira ta begira. Amaika aldiz, gudarien bat bidean ageri dala-ta, "bera da, Erramon da" esanaz, erakarri dituzte umeak, leioetara pozaren pozaz etxeko danak. Ta zenbat bider berak buru-bioztzetan daukaten uraxe dala ere, sinistu! Batzuetan gañera, zarragoak dira, «bera dala ta bera dalari» gogotsuago ekiten diotenak, andik laister, Erraon, ez dala-ta, atsekabetzeko.

Au mundua! Zenbat aldiz uste oi degu begiak dakustena, biotzak izatea nai lukena, dala! Bai dala egia, gizona itxaropenez bizi oi dala..!

Baña, amarrak dira, ta ez da mutilla iñondik ageri. Ama, batez ere, kezka gogorretan, jarri da. Etortzen laga ez ote-dioten, bidean zerbait gerta ote zaion, ta abar... Ama-biotzak, bakarrik, orrelakoetan, esaten dakizkian beste maite-kezkarik asko. Etzan, noski, etxe artan giro: ba-zan zer esana, egon-eziña ta buruauste pranko.

Andik laister, orratikan, zakurraren zaunga zoliak eta gazte baten oiñkada edo pausu sendo batzuen otsak baretu zuten itxaso nastu ua. Ango poza sukaldean Erramon ikusi zutenean! Gazte trinko ta lerdena da bera. Eri edo gaxo egon danaren ezaugarriak dakartzki bere arpegi orixkan eta matrailla-ezurretan. Frantzia'ko gudari-soñekoz jantzia dator.

Amak, maite-laztanez besarkatu du, pozaren pozaz negarra dariola; umeak gerritik zintzilik jarri zaizkio, «osaba Erramon, osaba Erramon» bein eta berriz diotela.

- Ongi makaldu aiz gizajo ori, -dasai (esaten dio) bere anaiak esku bat gudariaren sorbalda-gañean ipiñi ta begiz-begi oñetatik bururaño begiratuaz.

- Eta pozik onela natorkizutenean. Amaika erori dituk ankaz-gora geiago ez jeikitzeke... Ta oraindik,

guda madarikatu au bukatzerako eroriko ditukenak, anai.

- Baña, mutil, exeri adi, or tente egon gabe, nekatu rik etorriko itzan-eta, -esaten dio amak maiteki. Ta gero neskameari:

- Mari, ipiñi zan maia lenbailen, ao zabalik begira egon gabe; gero ere kontuok jakingo ditun, bai.

Batek galdera bat, besteak beste bat, orain ume bati muxu eman, gero bestea belaun-gañean jarri, etorri zan apaltzeko garaia.

Apaltzen ari diran bitartean, gudari onen eta bere etxekoen berri eman bear dizut, irakurle, onezkero jakin-miñez eukiko zaitut-eta, seguru-aski.

Laburdi'ko basetxe batean gaudela igarriko zenion, noski, ta gudari au basetxe ontako semea degula ere bai. Ama, alarguna aspalditik, irurogei ta amar urtetik gora dijoa, baña, amona gordiña dago oraindik; seme zarrena, etxera ezkondua, emaztea ta lau seme-alabakin ; eta Erramon, ezkongai, Frantzia'-ko gudari orain dana, ta neskamea: auexek dira bertan bizi diranak.

Leen ere, gudaritza edo soldaduzka egin zana Erramon, eta auzoko baserri on batean, bertako alaba bakarrarekin, ezkontzekoa zana laister. Baño, ezkon-

deiak egiteko aurreko astean, berriro gudaritzara, bere asmo oiek ondo lagata, joan bearrean arkitu zan. Alemandar ta Frantzitarren artean gudate gogorra sortu baizan. Europa'ko guda, 1914'garrenetik 1918'garreneraño iraun zuan, guda odoltsua.

Garai artekoa dezu, ba, nere ipui auxe.

Doixtarrek edo, alemanak Belgika'tik barrena Frantzia'n sartu ziran. Illabete-barru gudatea bukatuko zalakoan zeuden asko ta asko. Baña, Ingalandarrak eta Prantzitarrek Paris-inguruetan indar ikaragarriak bildu zituzten, eta Doix- tarrai andik gogor egiñaz, aurrera igarotzen etziten utzi.

Bi urte zeramazkian gure Erramon'ek aurreko lerroetan kementsu burrukaturik. Bere izena gudari zintzoen eta bulartsuen artean aipatzen zuten beti agintariak: eta sari goralgarri batzuen jabe ere egin zuten. Bi urte auetan osasuntsu ta zauri bat ere gabe ibiltzeko zoriona izan zuan. Gero, Marne'ko lubakieta- tik edo trintxeretatik irten, ta Prantzitarrek egin zuten aurrerakada bizkor artan, bala batek jo, iztarrezurra pitzatu, ta odola mara-mara zeriola, basoko zulo batean gelditu zan korderik gabe.

Andik laster, zaurituen billa zetozenak, ori-ori, odol-ustuta, il-zorian arkitu zuten. Baña, gogorra izan,

orratik, mutilla, ta illabete batzuek Gudari-Gaxo-Etxe'an egin-ondoren, ainbestean jarri zan.

Bere erriko aize osasuntsuaz indar-berritu zedin, etxera aldi baterako joateko baimena eman zioten. Ara andik laister, amari egin zion eskutitza:

«Ene amatxo maite-maite ori, agur: Alaituko zaituztela uste det nere gaurko albiste onek, Eguarri-Urte-berriak aurten zuekin igarotzeko zoriona izango det, Jainkoa lagun. Oraindik makal-xamar nagola-ta, orko talo-esneaz indar- tzera noakizute. Gerratean zintzo ta kementsu orain artean jokatu detelako ere, mezedede au egin omen didate. Baña, ontaz eta beste milla kontuaz, orreratzean, mintzatuko natzaizute. Il onen 15'an, arratsaldeko zortzietarako or nauzute, beraz, Jainkoak ala nai dualarik. Agur, ta ordurarte. Eman lenbailen Malentxo'ri onen berri.

Zure seme, Erramon».

Ez da esan bearrik, Erramon'en etxean eskutitza onek sortu zuan poza, ezin adierazi añakoa izan zala.

- I, Josetxo, -esan zion amonak lenengo arrapatu zuan billobatxoari-, oa lenbailen Malentxo'rengana, ta

esaiok nik esan diatela belaxe nigana etortzeko. Bai ote-dakik gero, nun bizi dan?

-Ez, zera? Makiña bat goxo jan ditut berak eman-ta.

Eta mutillak bideari laisterka eman zion bitartean, Andre Maria'ren irudiaren aurrean belaunikaturik, begietatik negar-malko gozoak zerizkiola, bere seme ua ez zezatela geiago, bere albotik kendu ta eraman, arren eta arren eskatu zion Zeruko Amari.

Etziran belakoan juan egun aiek! Nork esan amon-atxo on arrek, illaren 15'garren eguna bitartean, bere buru-biotzetan zerabilzkian asmo ta gogaketak? Orain zetarkion ezkerro, geiago etzutela gerrara eramango noski... Sari ori emango al zioten beintzat, ainbeste neke, iru urte luzetan, igaro bear izan zituan mutil gizaxoari... Ainbeste gudarien artean, bat gutxiago izatea, Erramontxo bere etxean ama zarraren bazterrian lagatzea, zer ajola izan bear zitzaien, ba?... Bai, Malentxo'kin orain ezkonduko zan, eta jaunak zemazkioken azken urtetxoak beintzat, zorionean igaroko zituan...

Zer ote-da, irakurle, bat biotz onekoa izan, eta bestek ere, bera bezelakoak dirala uste izatea? Aundikeri ta arrokeriak guda geienetan sortu oi dutela,

gudak, berriz, gorrotoa, ta gorrotoak biotzik ez duala, noletan gure amonatxoak bear bezela ulertu? Ezin sartu zitzaiokean buruan, zergatik ainbeste odol ixuri, orrenbestee negar ta buruauste etxeetan ipiñi zezateken eta nolaz ainbateko zoritxarra lurrean zabaltzeraino gizonak itsutu zitezken.

## II

**Erramon**, etxean, poz-pozik, batere kezkarik gabe, lasai ta zoriontsu bizi zala usteko dezu, bear bada, irakurle. Alabaña azaletik bakarrik begiratuta, edozeinek uste zezaken bezin alai etzegoan mutilla, kezka baten arrak zulatzen zion biotza. Pozez zegoan bai, ta ondo baño obeto, danok maite baizuten errian, eta etxean zer esanik ez. Baña, bere pozak luzaro iraungo etzuela ba-zekian ; laister-bai-laister bere burua, arratoi zikiñaren antzera, lubaki zabaletan eta baso, ta oianetako zulo estu-loitsuetan sartuta ikusi bearko zuala ere bai; ango kañoi-otsa ta sua, ta izkilluetako bala-txistu bildurgarriak gogora zetozkion; zaurituen deadar negargarriak eta iltakoen arpegi zuriak berriro

entzun ta ikusi bearrean zegola, uste zuan... Nolaz geiegizko pozaz alaitu ziteken, ba?

Baña, egia esan dezadan: oroigarri illun oiek baño, bere amaren ta Malentxo'ren alaitasun geiegiak, geia-go biotza goibeltzen zion. Ez al-zituan, bada, ikusten biok txoraturik ezkontza antolatzen, era bat eta betirako etxera etorria zitzaielakoan?

-Ez, Erramon, ez -erantzun oi zioten ao batez amak eta andregaiak-: berriro ez aute gerrara eramango. Bi illa bete ba-dituk emen agola, Eguarri-Urte berritako bakarrik etorri intzala ik uste uan baño. Gañera, gutxien usten degun garaian, eta laister, guda bukatzera dijoan zurrumurrua dabil bazterretan. Utziok, ba, ire leloari, sinistu zak, lasaitu adi beiñ-betiko.

Baña, ezin gure mutilla lasaitu. Egunak joan eta egunak etorri, bere biotza estuago ta larriago, urbillago ikusten baizuan bere zoritxarra.

Erramon beti izan zan elizkoia ta sinismen bizikoa; eta eriotza begiz-begi gudako su-lerroetan ikusi-ezkerroztik, areago. Argatik, bere buruausteak oro laga, ta azkenean, Jaingoikoaren eskuetan jarri zan era bat, Aren naia osoro ta gogoz betetzeko gertu.



Jaungoikoari egin zion bere buruaren eskeintza latz onek, ezin esan aiñako pakea sortu zion biotzean.

- Berak daki, -zion bere baitan-, zer zaigun onena... Lurrean batutzen ezpagaitu, Zeruan maite-lokarri illezkorrez betiko alkartuko gaitu... Jauna, zuk piztu dezu ni ta Malen arteko maite-sua, biok maitasun batez sutsuago maite zaitzagun...! Lurrean itzali nai ba'diguzu, berpiztu eiguzu Zeruan.

Osasunez berdindu, makaltasuna bota, indarrak gaitu, ta bapo zebillen mutilla anaiari baserri-lanetan lagunduz.

Batek baño geiagok aitatu zioten Naparro'ra ala Gipuzkoa'ra iges-egiñaz bere burua azke ipintzeko, alakok eta alakok bezela; baña, beti entzungor egin zien. Bere bizi-bidea, an zegoan, Malentxo'ren base-rian, eta an ez izate-ezkerotan, beste iñun bizitzeak etzion pozik ematen.

Otsaillaren asierako goiz eder bat zan. Udaberriko goiza zirudian. Ozkarbi ta urdiñ-urdiñ goia, eta eguzki epelez jantzia lurra. Oraindik mendi-gallurretan elurra ageri zan... Zuaizak billutsik oraindik, eguzkiaren musu maitekorrak atsegiñez arturik, bizitza berri babera ernetzen asi ziran. Baso-bideetan ote-lora oriak, eta erreka bazter babesetan saratsak, lore zuriz

jantzita, udaberriaren agerkunde zoragarria zagerten. Txoriak ere, goiz-goizetik txio-txioka egun artan besteetan baño alaiago, ziruditen.

Bederatziak-edo izango ziran, Malen, kabitik lenengo aldiz egun egin duan txori alaiaren antzera, Erramon'en baserrian, "Jainkoak egun on" esanaz, sartu zanean.

- Izan naiz Erretore-etxean, -esan zuan belaxe.

- Eta zer esan din?, -derantzuo amonak, zutik jarrita.

- Zer esan didan? Ezetz asmatu, Erramon? Ja, ja, ja..! Esan gutxiena uste dezuna, ta asmatuko dezu.

- Malentxo, zearka-mearka ibilli gabe esan ta kito, -erantzun zion mutillak maiteki ta jakin.miñ biziz.

- Zure ama ta nere arteko asmoa izan da: alegia, Erretore jaunaren iritzia jakitea, gure ezkontzaren gora-beraz, eta ara zer esan didan datorren astean Garizuman sartzan gerala-ta, obe degula Pazkoetarako lagatzea.

Ta amonak galdatu zion:

- Ta, ez al dion galde-egin beste esantako artaz?

- Bai, ba: esatera ni joakizuten, eta zuk, amona, ez didazu utzi esaten. Orra: onezkero ots-egin ez diotenean, izan litekela eri dagona ta gerrarako gauza ez

dana bezela etsirik, etxean lagatzea. Gañera, dana dala, laister gerra bukatuko dala, ta lasai egoteko danok, orain-arte bezela, Jaungoikoak lagunduko digula-ta.

- Ondo esan du apaiz jaunak -esan zion Erramon'ek- Jaunak lagunduko digu. Berak daki gure zorionerako biderik egokiena zein bide dan, eta andixetik eramango gaitu.

Baña egia esateko, etzan amona oso pozik gelditu Malentxo'en esanakin. Arek gauza lenago amaitu nai zuan; Pazkoak urrun zerizkion, eta Erramon'en goraberaz, bere ama-biotzean zerabilzkian amets eztiak, apaizaren itzez pizka bat ozpinduta gelditu zitzaizkion.

Bakoitzak bere iritzia agertuaz, iruok izketan ari zirala, ate-ondoan loturik zegoan zakurra zaungaka asi zan; gero atejoka norbait. Eskaleen bat zelakoan joan zan amona atera, ta erriko aguazillakin topo egin zuan.

- Sartu, sartu zaite barrura... -esan zion amonak sukalderaño berekin erakarriaz-. Zer berri, Matxin?

- Onik ez, andre Mantoni. Erramon Bourdeaux'ko Gudari-Gaxoitegira joateko agindua etorri zaio alkate jaunari. Biar, arratsaldeko, seitako trenean joan bearrean dago. Goizean joan dedilla Erriko Etxe'ra, ta

txartela ta gañerako bear ditunak, emango zaizkio. Auxe aditzera ematera etorri natzaizute.

Ezta azaltzea erreza, itzok entzunaz, sukalde artan jazo zana. Amona ta Malen antsika ta negarrez asi ziran, umeak eta beste gañerakoak ere bai; etxean oso maite zuten baten bat il zala, zirudian. Ango nai-gabea ta zoritxarra.. Danetan, naigabearen naigabez baña, paketsu ta kementsuena Erramon ageri zan. Albiste naigabetsu ori noiz edo noiz etorriko zitzaiola-koan baizegon aspalditik.

- Jaungoikoak ala nai izan du. Bere erabaki santua apalki artu dezagun eta kristauei dagokigunez bete dezagun. - Auxe izan zan Erramon'en erantzuna.

Etxeko guziak arrituta utzi zitun Erramon' en sinis-men biziak. Izan ere, orrelakoetan agerian jartzen baita norberaren siñismena ta kristautasuna egizkoa ala aizuna edo itxurazkoa dan adieraziaz. Zan bezela, agertu zan gure Erramon abagune ontan: Kristau jator, egizko Fededun.

**Gudako** su-lerroetara etzeramatela-ta, apur-txo bat lasaitu ziran Erramon'en etxeokak eta Malentxo. Bere kutun aiei poz pixka ori ematearren, era ortara mintzatzen zitzaien, baña berak bazekian ondo, Gudari-Gaxo-Etxe'ra deitzera, laister aurrenekotako sule-erroetan bere buru ikustea izango zala, nai-ta-naiez.

Oraindik erren pixkatxo bat egiten zuan, baña osasuntsu zegon, eta bera baño makalagoak amaikak joan bearko zuten guda-zelaietara.

Bere anaiak eta Malentxo'k lagundu zioten trenaren geltokira. Inguruko errietako beste gudari asko ere an zeuden trenaren zai. Etzan poz-irintzi aundirik eta algara gozo alairik entzuntzen antxe, orratik, arratsalde artan, gazte-pillo ederra bilduta arkituarren.

Esantako orduan etorri zan trena, ke beltza zerio-la, txistuka ta asnaska... Burni-ots tarrapata bat entzun zan, eta gelditu zan.

Gudariak oro, sorbalda-gañean eta eskuetan, beren tresnak zeramazkitela, bagoi berezietan sartu ziran, iltokira dijoazten abere antzo. Orduantxe sortu zan naiko zarata ta ixkanbilla...

- Agur, Txomin, berri onak biali zion batek.

- Ez aztu, eta errezatu asko nere alde zion beste batek.

- Etzak kendu, beintzat, lepotik, nik emantako medallia.

- Ikusi-arte... Gorantsiak oroi...

- Agur, anai, ondo bizi. Agur, Malentxo... Otoitz-egin...

- Agur... Agur... Agur...!

Alako batean trenak irrintzi bizi-luze bat egin zuan, asnaska asi zan eta poliki-poliki gel- tokitik ezkutatu zan. Gudari geinak euskaldunak ziran, ezkongaiak asko, baña, gizon ezkonduak ere bai. Guztiak sasoikoak, gazteak eta alaiak, baño etzeukaten jolaserako gogo aundirik, ezta berriketako gurarik ere. Baizuek leioetatik begira, etxeetan laga zituzten maite-biotzekoez oroipenetan, bestetzuek, beera begira, ausnarrean dagon abelgorriaren gisa... Guziak, ixil-xamar, urduritsu, goibel, eta kezkatu.

Bitartean, Malen gazteak eta amona Mantoni'k jardunketa au zerabilkiten alkarrekin:

- Oraingo, beintzat, ez daramate gerrara -zion Malen'ek. Eta gerora, eramango, ba'ligu- teke ere, ez degu, Mantoni, itxaropenik galdu bear. Ara daramazkiten guziak iltzen al-dira, ba? Ortxe ibilli zan Erramon

bi urte luzetan zauri bat ere artu gabe. Gero, ederra eman zioten gizajoari baña.

- Gaur-arte ondo zaitu zigun jainkoak, eta aurre-rantzean ere, izango din bere laguntza gure Erramon'ek, bai. Berak egunero eskatuko zionan, baña, guk ere Ama Birgiñaren bitartez eskatu bear zionagu. Etorri adi, arratsaldero, garaitxu ontan, edo al-dena-nean, eta errosario bat bion artean errezatu diñagu.

- Bai, pozik etorriko natzaizu. Eztet uste nere gurasoak orixe ukatuko didatenik. Gañera, astero jauna artuko det. Geltokian, bere azken itzak auexek izan ziran: Agur Malentxo...! Otoitz-egin..! Eta gure itza bete dezagun, oraintxe bertan errezatuko degu. Ezta, amona?

Eta Andre Maria'ren irudi-aurrean belaunikaturik Errosario santua bero-bero esaten asi ziran...

Bi emakumeok otoitzean ari ziran bitartean, erriko apaiz jaun Erreto-rea, sartu zan baserrian «Jaungoikoak arratsalde on», esanaz. Beren errezua amaitu-arte jarraitzeko amonari aginduaz, sukaldean, zurezko aulki batean exeri, ta zigarrotxo bat piztu zuan. Nes-kamea arropak jaboatzen ari zan arraskan, aldame-nean luraspil aundi bat, izara, maindira ta janzki zuri garbitu-berriez betea, zeukala. Etzan arritu an apaiz

jauna ikusita, oso etxekoa baizuten. Umeak gutxigo, goxoak ematen zizkien-ta, zetorren geinetan. Sukaldean zala usmatu zuten bezin laister, an ziran danok «Abe Mari'ka» eskuan muiñ-egitera.

Irurogein bat urteko gizaseme gordiña zan, egokita atsegiña, biotz aundiko gizona. Ogei urte gutxienez ba-zerarnazkian erri artan Erretore, ta etzuan etsai bat erri osoan. Bere eleiza ta eliztarrak, beste ametsik eta buruasterik etzuan eleiz-gizona ta aita. Argatik, ezbearrik edo, zori-txarrik etxeen batean nabaitu oizuanean, an izan oi zan biotz naigabetuak zeruko ezti-tantoaz gozaten. Lau urteko gerrate gogor artan batez ere, aita errukitsu ta aingeru zaitzalle izan zitzaien.

Erramon'en aldendu bearrak miñ aundi ta sakona eman zion, txit maite baizuan mutilla. Iñork baño obeki aren biotz ederra berak ezautzen zuan, lenengo Jaun-artze ezkeroztik animaren zuzentzale bera izan zitzaion-eta.

Mantoni'ren naigabea etzala txantxetakoa izango ondo zekielako, sartu zan gaur etxe artan. Malen ere, antxe arkitzeak etzion poz makala eman, eta biok otoiz-egiten ikusteak biotza lazaitu zion.



Izan ere, bere lanari asiera on bat emateko erarik egokienean zetorren. Otoitza baita zeruko laguntza gureganatzeko biderik motz eta erosoena.

Errosarioa esan-ondoren laister ziran sukaldean bi emakumeak. Itz-azpeltu gozo bat iruen artean egin zuten, eta etxeratzeko asmoz jeiki zan apaiza, baña, atera eldu orduko sorotik zetozen senar-emazteakin topo-egin zuan, eta jakiña aiekin ere berriketalditxo bat egin gabe ezin gelditu, ba. Orduan jakin zituan Erramon'en anaiak esanta, aren geltokiko azken-agurra ta Malentxo'ri zuzendu zizkion azken-itzak.

- Egunero oerakoan esan oi degun errosarioa, izan bedi gaurtik bere alde. - Esan zuan señarrak-. Gañera, nik beintzat, nere illeroko, Jaun-artean ta jaietako Mezak ere, bere alde Jainko gure Jaunari eskeintzeko asmoa det.

- Eta gu biok, Erretore jauna, -esan zuan Mantonik Malen'en sorbalda-gañean eskua ipiñirik-, beste errosario, bat esango diegu egunero, Jainkoa lagun.

- Eta nik gañera astero Jauna-artuko det emendik aurrera -jarraitu zuan Malentxo'k.

- Ederki, ederki... -bukatu zuan apaiz jaunak. Orixe da Kristau bezela jokatzea. Goiko Jaun onak entzungo ditu zuen eskariak, eta Erramon'entzat eta

zuentzat onena litzaizutekena emango dizute. Ezta izan or, alperrik otoitza sekulan. «Eskatu ta emango zaizute», esan zigun askotan Jesus gure Jaunak, eta beti eman oi du, edo eskatzen degun uraxe, ala betiko zorionerako geien dagokiguna. Urrengo batean jarraituko degu. Agur, ba, ta urren-arte. Ba-noa, garaia da-ta...

- Etorri berriz ere nai duenean -esan zioten amasemeak-. Ongi daki beorrek, gure etxeak ez duala beorrentzat giltzik, eta abegi onez artuko degula beti.

- Bai, bai, etorki natzaizute, ta gutxien uste dezutenean gañera. Agur...! Agur...!

- Agur, ta nai duan-arte...!

Illuntzen asia zan Erretore jauna baserritik beera tapa-tapa bere etxeruntz abiatu zanean, bere-artean ziola:

- Ondo eman diot asiera Erramon'en aginduari. Mutil gizajo ona...! Etzait aztuko bere azken-eskaria: Juan bedi, arren, nere etxera, eta Malen'kin ere mintzatu al-duan maizena, zeruko itzez poztu ditzan eta Jaunaren naiarekin beren naiak bat-egiten erakutsi dezaien. Oraingo gudaketa gogorra baño gogorragoa izango da, ta gudari asko ilko dira; ni ere iltzea gerta litekena da. Ni eriotzarako ongi gertuta noa, ta Jauna-

ren erruki aundiaz Zeruratuko naizela uste det. Lurrean geiago ikusten ezpagera, Zeruan ikusi gaitetzela. Auxe da nere otoitz-eskaria, eta era ontan otoitzegiten ikusi nai nituzke nere maitaleak ere, Malen ta nire ama beintzat...

Eta bai ederki bete zuala Erretore jaunak Erramonen nai txalogarria! Illabete zan Erramon'ek alde-egin ziela, ta apaizak eskutitza auxe egin al-izan zion:

«Ene Erramon maite: Malentxo ta ire etxeakoak oro, ongi. Ni ere bai, jaunai eskerrak. I ez aiz ongi egongo su-leize ortan, baña, tira... osasunez ba'ago, gaitz-erdi. Eguneroko papelak diotenez, Verdun-alde ortan gogor ari zerate. Gu ire alde otoitz-egiten asperetzeke. Zerbaiten bearra izango dek gaxo orrek. Malentxo'kin ta ire etxeakoekin astero mintzatzen nauk, i juan-ezkero. Poztuko auen berri on bat eman bear diat danok Jaunaren eskuetan erabat jarrita zeudek, ta lurrian geiago alkar ez ikustekotan, Zeruan betiko alkar ikusiaz eta maitatuaz alkartzeko asmotan. Agur, Erramon. Nere Meza ta otoitzetan ez aut aztutzen, ezta aztuko ere. I ere ez adi, arren aztu ireetan nitzaz. Ire serbitzari zintzo ta aita Kristo'gan,

P. Goyenetxe».

## IV

**Gure** Erramon'i berak uste zuana gerta zitzaion, Bordeaux'ko Gudari-Gaxotegian bi egun igaro-ondoren, Verdun'go su-lerroetara bidali zuten. An, bere adiskide maite batekin arkitu zan bere erritarra ta lagun zarra, betiko adiskide mamia izan zunarekin, alegia Malentxo'ren lengusu Matxin'ekin.

Bai maite-besarka estua alkarrei eman ziotela topatu ziranean! Ta, ua bion poza, alkarrekin zirala ta alkarrekin bizitzeko era zutela jakin zutenean!

Verdun'go gudaketaren egun ikaragarriak ziran. Egun odoltsuak Europa Gugan egun odoltsurik izan ba'zan. Doixtarrak edo alemanak uri indartsu au nundik-edo-andik bereganatzeko, asmotan zebiltzan. Gizonak erailtzeko ta esirik gogorrenak purrukatzeko ordurarte asmatutako kañoi ta izkillu erailkorrenak, gau ta egun; su ta gar zerioten. Baña, Frantzitarrek Uriari eusteko, andik atzera ez egiteko, zin-egin zuten. Antxe erabaki zan gudaren zer ikusi ta gora-bera, ta Frantzitarren garaipena, Verdun'go gudarien oldar-

aldi arrigarri ta kemen bikañari eskerrak etorri zala, esan liteke.

Eguzkia mendi-ostean ostendu ta izkutatu-arren, guda-zelaian arratsa danik ez du ematen. Ango su ta garraren argitasuna itzalduko duan gau illunik ez dago. Besoan gurutze gorridun gudariak, gudaketaren ixil-uneaz baliatuz, zaurituak eta illotzak oetxoetan landa zabal batera dakarzkite. An osalariak eta era askotako sendagilleak zaurituei lenengo sendaketa negargarriak egiten; an apaizak, gauza diranak aitor-tzen, Sendotza santuaz igurtzitzen, eta ildakoen alde Eleiz-otoitzak egiten... Ango deadar, orru ta katazi nai-gabetsuak...! Ikuskizunaren negargarria...! Emen gizon-atal bat beso ta bururik gabe, an beste bat, oñik gabe, deadarka; pilla batean gizon-aragi-gorri-puskak...

Euskaldunak nun-nai eta beti izan dira gudari oldartsu, sendo ta kementsuak, eta gudate gaitz artan ere, euskal-odolaren leialtasun ta ausartasuna agerian jarri ziran. Frantzi'ko gudari-buruzaiak eta gañerako buruzagiak ba-zekiten ori, ta argatik, Verdun'go gudan, su-lerro aurrekoenetan, al-izan zituzten euskaldun guda-mutillik geienak bildu, ta ipiñi zituzten.

Be-Nabarra, Zubero ta Laburdi'ko euskal-gudari aien artean zeudeen gure Erramon ta Matxin ere. Apaiz euskaldunak ba-zituzten berekin eta al-zuten maizena aitortu ta Jauna artzen zuten.

Maiatzeko egun bat zan. Gauean, lubakietatik irten ta aurrera jotzeko ta aurrerakada bat egiteko agindua jaso zuten gure mutillak. Aurreko egunez beren aitorketak egiñaz, gertu ziran urrengo eguneko gudaka gogorrerako. Asko eroiko ziran zaurituta ta geigo ez jeikitzeke ere bai. Erramon'ek bere bizitza osoko aitorketa egin zuan. Egun-sentian apaizak lubakian Meza eman zuan, Erramon eta Matxin'ek lagun-durik. Jauna artu, ta gaueko gudaketarako gertuerak egiten igaro zuten eguna.

Frantzitarren kañoiak, sua ta burnia zerizkiotela, bere lozorrotik esnatu zuten gau illuna. Euskaldun gudariak lurrean arrastaka ta zulotik-zulora, tiroka, aurrera zijoazten polliki-polliki. Doixtarren kañoi-otsa ixilldu zan baña lubakietatik ta ametralladora-kabietatik izugarritzko su-jasa bizia zetorren aurreratzen ari ziran gudariengana. Erramon ta Matxin, alkarren ondoan, orpoz-orpo zijuazten. Alako batean Matxin lurrera zerraldo eroritzen da... Makurtzen zaio Erramon ta aztertzen du... Oraindik bizi da. Bizkarrean

artu ta zulo batera darama, gurutze-gorridunak, bizi-rik jaso dezaten. Baña, bere eginkizun maitekorra betetzeko betarik etzuan izan. Su-bolada batek, biok maite-besarka-estuan, lurrean zerraldo utzi zitun.

Guda-zelaia zaurituz ta illotzez josia gelditu zan. Gero, auek jaso, ta eramatera etorri ziranak Matxin ta Erramon, laztan batean loturik, eta illotzik arkitu zituzten. Eta esan ere bai beren artean: «Beti alkarrekin ziran bizi zirala, ta alkarrekin juan dira betiko bizitzara». Ta belaunikaturik «Aita Gure» bat esan zuten bien alde.

Bitartean, berriz, Euskal-Erriko txoko alai batean sartzera zijuan eguzkiaren argi-izpiak arpegia jotzen ziotela, iturrian jaboatzekoak egiten ari zan baserritar neskatil eder batek kantatzen zuan:

«Nik bai-dut maiteño bat,  
oi zein hura lako...!  
Ez da tipi ez handi,  
bai bien arteko,  
Bergia du ederra,  
urdin, ezti oso.  
Biotzean sarthu zaut  
ez baizaut jelgiko».

Ta ixil-une labur baten ondoren beste abesti xamur auxe. Zerutik jetxitako aingerutxoa edoa bere maite-naigabeak kantari urrumaka ari dan uso maitalea zirudin.

«Nik maite nuban kutuna,  
nere atsegiñ-zoruna  
ibilli bai-ta bai-egon  
ez dut arkitzen iñinon.  
Billaka beti bai-nabil,  
baña, da agian, nunbait il.  
Ibai-ertzetan galdetzen  
dut iya ote-den emen.  
Batzutan dagit oyua,  
bestetan, berriz, ulua.  
Maitea, diyot, nun abil?  
Baña da, noski, nunbait il».

Baña, il eztala, ta bere begiak oraindik ikusiko dutela bere maite kutuna, ta biok oraindik zoriontsuak izango dirala oro aditzera eman nairik-edo, berriro ta leen baño indartsu ekin zion:



«Nik bai dut maiteño bat,  
on, zein hura lako!  
Ez da tipi ez handi,  
bai bien arteko.  
Begia du ederra,  
urdiñ, ezti oso:  
biotzean sarthu zaut  
ez baizaut jelgiko».

Erramon'en eriotz-berria jaso ta andik bi illabetera il zan andre Mantoni, gozoki Kristo'ren besoetan, bere seme laztanarekin Zeruan arkitzeko pozez. Eta erreza-go ta segurugo berori lortzeko asmoz, Karmendarren Konbentu itxi batean sartu zan gure Malentxo ona. Saintutasun-bidean egunetik egunera aurreratuz, Karmelo-mendiko gallurretaraño igo zan. Andik urte batzuetara, oraindik gazterik, doneen eriotzaz il zan. Gaur, noski baño, noskiago, iruok Zeruan daude, betiko zoriontsu, emen lurrean maite izan ziran baño sutsuago elkar maitatzen.

# Andre Joxepantoni

## I

**Gure** Gipuzko maite onetan basetxe edo baserri aberats eta paketsurik baldin ba'da, Joxemiel ta Joxepantoni bizi ziran uraxe ba-zan, noski. Ezkondu-ezkerroztik gora ta gora zijoazten...

Ikulluan aziendak, naiz txerri ta bei, naiz txekor, txal eta idi, nola nai ta ala; zelai eta belardiak bezela baratza ere, urtetik urtera emakor eta ugarikorrakoak.

Senar-emazte ta semetxoen biotzetan, berriz, egizko maitasuna ta pake zerutarra.

Zorion-aingerutxoak ego zuriak zabalduz, basetxe-gañean batetik-bestera egan zebiltzala esan ziteken.

Baño zoriontasun osorik ez dago mundu ontan. Basetxe-alboko loretegian, atzo bertan liraiñ eta mar-dul loretegiko apaingarri ta zoragarri ziran lore batzuek, gaur igartuta, bizitzaren kutsurik ere gabe lurrean daude, udaberria izan-arren, ugaldeak bere ur zikiñetan arrastaka daramazkiela...

Joxemiel omen zan gizona noski...! Trinko, luze ta sendoa, gorputzez; arpegiz, musu gorri ta sudur luzea; besoak, zaintsuak, esnarria bera baño gogorragoak; eskuak babaz josiak, atxurrean eta laiean trebeak. Langillea, langillerik ba'da, biozbera ta maitalea era berean, aurtxo apalaren antzera. Bere Jaungoikoa, bere emazte, semetxoak, baserri-lanak, beste lelorik etzuan buru-biotzetan.

Igande-jaietan, entzun Meza Nagusia, -etzan iñoiz Meza labur batekin, al ba'zuan beintzat geldituko-, eta arratsaldeetan Bespera-ondoren bere kideko baserri-tarrekin Eleiz-atarian berriketaldi bat egin, pipakada bat ketuz baso erdi bat edo beste ardo ala sagardo edan ezkerro, bapo zegon gure gizona aste osoan lanari ekiteko. Oso gutxitan iñork joko edo apusturetan ikusiko zuan, eta ardotegetan, bein illundu-ezkerro, sekulan iñork ez.

Jaietan bezela, azoka ta perietatik ere, illuntzetan etxeratzen jatorra zan.

Egunero bere andrea ta morroiarekin errosario santua sukaldean errezatu, apai-legea egin, beiak jetxi, -ordurako jetxita ezpazeuden-, eta oera, al zuan bezin laister, ta goizean eguzkia bera baño goizago jeiki. Orra, etxe paketsu ta zoriontsu artako biziera.

## II

**Bein** batean, -ilbeltzako egun bat zan-, sorotik, ezurretaraño guzia blai eginda, otzez dardaraz, etorri zan etxera.

Oeratu zan, bañan geroztik etzuan gizajoak onik izan. Izugarrizko berotasun babak kiskaltzen jarri zion soin osoa. Asnasik ezin artu ta ito bear.

Joxepantoni'ren atsekabea zenbatañokoa, ez ta adierazten biziro erraza. Inguruko sendagillei ots-egin zien, Donosti'ko ospetsu bat ekarri-azi ere bai. Baña, dana alperrik. Bere Joxemiel egunetik egunera okerrago, gaizkiago.

Sinismen biziz, itxaropen osoz, Zeruko Amarengana jo zuan. Amaika aldiz, eguzkiak bezela illargiak ere, ikusi zuten andre doakabea, besoak-zabalik, belauniko ta auzpezka ere, Ama Birgiña'ren iruditxoaren aurrean, negar ta negar esaten:

«Ama errukitsua, kupitu zaite ama doakabe one-taz. Senda ezazu nere señarra... Zuk Zeru-lurretan guzia zenezake-ta, sendatu zenezakidazu nai ba'dezu. Nai ezazu, Ama maitea... Biok juango gera urtero bizi

geran artean Arantzazu- ra, Zuri antxe eskerrik bero- enak ematera. Sendatu, bada, Zuk, gizonak ezin dute- ta, sendatu Zuk... ».

Baña, Joxemiel gaxoa, oinkada luzez eriotz- bidean, betiko bizitzara zijoala antzematen etzan gauza zalla. Ta Joxepantoniren biotz naigabetuan burruka gogorrak sortu ziran.

Norbaitek, bere alboan, par-antzean edo ezpañe- tan par-irria zuela, aopean bezela, esaten ziola zeri- tzaion:

- Oraindik ere Jaungoikoa eta apaizen esanak sinisten jarraituko ote den? Ara, ik uste osoz, amaika bider, ain errukiorra unan Amarengana jo, ta zer iritxi den azkenez, gajo orrek? Euk otoi ta arren egin ala, ez den, ba, eria gaizkiago ikusten? Ta Jaungoikoak maite aunala, siñisten al-den oraindik ere?

Ta itz auen ostean, par-algara zoli bat entzun zuela zerizkion.

Tximista-argiaren antzeko alako, astiñaldi bizi bat nabaitu zuan bat-batean andre gaxoak burutik-oñeta- ra gorputz osoan. Etzion ez etsai gaiztoaren tentake- tari lekurik eman. «Aitaren egiñaz» Jesus'ka ta Maria'- ka asi zan Zerurantz begira: ta belaunikaturik, Kredoan esan zuan.

Arratsalde artan, Joxemiel'ek berak eskatuta, Bikario jauna etorri zitzaien, eta gaxoak, bizitza osoko aitorketa apalki egin ondoren, apaizaren Azkezpena ta itz zerutarrak entzunda, iñoiz ez bezelake, lasaitasun ta poza biotz barnean somatu zituan. Jaunaren eskuetan jarri zan gero Joxemiel, bere borondatea jaunare-narekin bat-egiaz.

Erriko eleizatik urbil baizegon basetxea, Elizakoak illunabarrean ematea erabaki zuan Bikario jaunak, erritarrik geienak jaunari laguntzera ta eriaren alde otoitz-egitera eldu zitezen.

Illunabarrean, kanpai edo ezkil-otsak, enara beltzen gisa, batetik-bestera zabaldu ziran, eta etxe guzietan berri naigabetsuaz jabetu. Laister ziran eleiza-bidean emakume ta ume koskorak ezik, agure kankallu ta gazte lerdanak ere.

Emakumezkoak burua estalki beltzez estalirik ta batzuek besoetan aurtxoak zeramazkitela. Etorri ala, eleiz-barrura sartu oi ziran.

Gizonak, berriz, aguretxoren bat edo beste kenduta, eleiz-atarian gelditu ziran. Apaiza eleizara eldu zan bezin laister, beste kanpai-ots luze bat entzun zan, eta atarian zeudenak oro, eleizeratu ziran.

Gizon, emakume ta umeak ere zekarzkiten kandelatxoak batek bestenarekin piztu zituzten. Apaiza aldarera igo zanean, guziok belaunikatu ziran.

Ua zan ikusteko gauza...! Eleiza sutan zegoala zirudian.

Apaizak Jauna eskuetan artuta, bular-gañean estalirik izkutatu-ondoren, abiatu zanean, gizon ta umeak aurrera jo zuten. Gizonezkoak eta mutikoak, -auek aurretik-, ixil-ixilik errenkada bitan ezker-eskubi, kandela bana piztuta zeramatela...

Ondoren iru mutil koskor sotana gorritz ta atorra antzeko soñeko zuriz jantzita, batek txintxarriari noizean beinka eragiten zion, eta beste biak eskuan parola aundi banakin, aren bi aldamenetan, aingerutxoen antzera, zijoazen.

Atzetik apaiz jauna «Miserere»-otoitza, ixil-une batzuek egiñaz esaten... Onen ondoren, neska ta andre mordoska ederra, erdi-negarrez...

Joxemiel'en etxera eldu ziranean, gizonezko bi errenkadak belaunikatu ziran, ta erditik igaro zan apaiza. Ezkaratzatik entzuten ziran Joxemiel gaxoaren asnas-estu-otsak eta etxekoen negar-zotiñak.

- «Pax huic domini...» Pakea etxe oni, ta bertan bizi diran guzieri, -esan zuan apaizak eriaren gelan sartu orduko.

Jauna mai zuria-ren gañean utzi, ta latiñezko otoitz batzuek esan-ostean, Joxemiel zetzan oera urbildu ta galdatu zion:

- Jaun-Goiko, Alguztidun Zeru-lurren egillea sinisten al-dezu?

- Bai, jauna. -darantzuio eriak.

- Jesukristo Bere seme bakarra sinisten al-dezu ?

- Bai, jauna, bai. - Era ontan Sinismenaren aitormena apaiz jaunaren galdeari erantzunaz egin-ondoren, gurutzea ipiñi zion ezpañetan muiñ-egiteko, ta gela osoan entzunteañoko musu bero luze bat eman zion Joxemiel'ek.

Gero bi biatzez jauna artuta erakusten dio esanaz:

- Eta nik eskuan daukadan auxe, Jesukristo'ren egizko, Gorputza dala, Bere odol, anima, Jaungoikotasun ta guzti, sinisten al-dezu?

- Bai, jauna.

- Ortaz gañera, naigabe ala ezbearren bat egin dizuten guzi-guziei biotz-bio,tzez barkatzen al-diezu?

- Bai, jauna, barkatzen diet.



- Eta zuk bein-edo-bein, itzez ala egitez, atsega-been bat eman diezunei barkapena eskatzen al-diezu?

- Bai, jauna, bai, eskatzen diet, -esan zuan Joxemiel'ek poliki-poliki, gelan belaunikaturik zeudenei begiratu xamurra zuzenduaz.

Bai pozez sartu zala Jesus eriaren barruan...! Laga ditzagun biok alkarrekin izketa gozoan, ta guazen gu berriro eleizara.

Ozkarbi dago. Izarrak dirdizka ta alkarrei kiñuka bezela, bere Jaungoikotasuna ta gizatasuna estali ta izkutaturik dijoan jaunari agur dagiote. Illargiak, alako zillar-argi legunez eleiz-bidea argitzen du. Ixil-ixilik dana... Eleiz-mutikoaren zintzarri-otsak eta gizon-emakumeen oinkada-ots neurtua, beste soñurik ez da entzuten...

Eleiz-barruan sartu diranean, apaizak jauna eskuetan duela, onetsi ditu guziak, eta jaunari lagun-duaz eta eriaren alde otoi-egiñaz zer nolako egintza ona egin duten aditzera eman die. Olaxe bukatu zan eleizkizun xamur ta eder ua.

**Urrengo** goizean, Meza asterako; eleizan zan Joxepandoni. Negarrez bustitako amaika arren eta eskari egin zituan gajoak. Senarrak gaua oso poliki igaro zuala-ta, itxaropenaz biotzak pil-pil zegiola, Meza santua entzun-ondoren, indarberiturik bezela etxeratu zan.

Gosari-legea egin-ostean, laister zan Bikaio jauna ere, Joxemiel'enean. Okerrago zegonik etzitzaion irudititu, baña ezaguera osoz Sakramentu au artzera obezala-ta, Azken-Igurtzia bereala emango ziola adierazion Joxemiel'eri. Pozik eta apalki artu zuan eriak, eta itz ezti batzuek gaxoari zuzendu-ondoren, «gero-arte» maiteki etxeko guziei ziola, irten zuan apaiz jaunak.

Eguardi-aldean erriko osalari edo medikua izan zan eta eria oso gaizki arkitu zuan. Biotza era bat nastuta zerabilkila, ta bere ustez, ordu batzuetako bizitza besterik ez zeukala esan zion Joxepantoni'ri; agoni-aurreko biotzaren burrukak zirala oiek, eta ondo egingo zukeala apaiza bazkal-ondoan deitzeakin.

Giza-biotzarentzat ez da gauza naigabetsuagorik itxaropen-sua itzaltzea baño. Joxepantoni'ren negarmalko-samiñ eta antzi estuak...! Otso-amak bere

semeak ostu dizkiotela somatzen duanean, eztu orru atsekabetuagorik egingo, noski.

Gure animaren etsai gaiztoak orduantxe berriro erasan zien andre gaxoaren adimen illunean gogoketa auek piztuaz:

- Oraindik ere Jainkoak maite aunala sinisten jarraituko al-den, ttuntun orrek? Alperrikakoak izan zaizkin ire eskari ta arrenak. Noletan merezi den ik ainbesteko zoritxarra? Ezkondu-ezkero biok Jaunaren legea nola ongien ta osoro beteko bizi izan zerate... Ta orra orain damaizuten saria.

Joxepantoni'k negarrari eman zion, Joxemiel azken-asnasetan zetzan oera alboratu, ta ari begira-begira negar-malko beroak matrailletatik-beera zerizkiola, tente gelditu zan. Maitasun-oñazearen aragizko irudia zirudian gajoak.

Apaiza agoniko otoitzak errezatzen ari zan, eta auzoko emakume ta gizon batzuek ere belauniko erdi-negarrez otoi-zegiten. Joxepantoni ere belaunikatu zan gaxoaren oean burua makurturik, negar-malko ugariz bustitzen zuela.

Ontan argitu egin zan Joxemiel. Begiak zabaldu ta gelan zeudenei begira asi zan. Jeiki zan Joxepantoni ta apaiza ixildu zan.

- Joxemiel...! Joxemiel...! Zer nai dezu?, -esan zion negarrez ta maiteki Joxepantoni'k.

Eta poliki-poliki beregana begi lausotuak zuzendurik, esan zion:

- A..gur... Ba-noa: U..me... gaxoak ... zai- tu... ondo... Zeruan... danok...

Ezin bukatu izan zuan. Joxepantoni negar ta negar zutik gelditu zan gizonari begira, erdi-erotuta, naigabearen naigabez zer egin etzekiela. Apaiza eriaren belarrira otoi labur bat edo beste esaten asi zan, gurutze santua ezpaiñetan ipintzen ziola.

Asnasa luze bat, gero beste bat, ta illotzik gelditu zan.

Joxepantoni'k bere asnasez, negarrez eta musu beroz bizitzara erakarri naiean bezela, illotzik zetzan senarraren gorputza besarkatu zion:

- Joxemiel... Bakarrik gelditzen naiz. Etzaitut sekulan aztuko. Jaungoikoak eztitu nere eskaririk entzun nai izan. Beregana eraman zaitu... Ni bakarrik, gure iru semetxoekin lagata. Zer egingo det nik orain zu gabe? Noletan Jainko gure jaunak nai izan du au..?

Apaiza asko ikasia ta ikusia baizan, etzan ezer arritu orrela emakume gaxoa ikusita. Eta artuta beste

gela batera eramán nái zuten auzoko emakume on batzuei esan zien:

- Laga zazute pakean. Lasaitu dedilla. Askatu dezala biotza estutzen dion korapilloa. Orduan lasa ta pakean geldituko da-ta.

Alaxe gertatu ere. Andik ordu-erdira beste emakume bat zenuten Joxepantoni. Orduan ots-egin zion apaizak eta sukaldean, sutondoan exeri-azirik esan zion xamurki ta maitekiro:

- Joxepantoni irea bakarrik al-unan, ba, ire senar ori, ala Jainkoarena? Jainkoak eman zían, Bere-Berea unan, ta Berak nái izan duanean, kendu din, Beretzat artzeko. Jaunaren naia, orixe izan den, eta guri orain etzagokigunan Aren nái santua agurtzea baizik. Zer zakiñagu guk jaunaren bideak aztertzeko ta okerrak ala zuzenak diran esateko? Udaberriko illunabarretan ez al-intzanan ibiltzen ur-ontzia eskuetan eramakiñala, ire baratzako loretegi eder orretan jo batera ta jo bestera lore egarrituak urez asetzen? Ta, ez al-itunan eorrek gero, lorerik mardulenak eta ederrenak ebaki ta ire etxeko gela nagusian apaingarritzat ipintzen? Orixegun zigun, ba, gaur gure Jainkoak Joxemiel'ekin. Ta gañera, Joxepantoni, guk etzekiñagu, Jainkoak bakarrik zekiñ, guri egokiena zer zaigunan, eta zeru-

ratzeko ta arako irabazi aundiak irabazteko biderik zuzenena ere zein bide zaigun, Berak zekiñ ongiena. Ire semetxio Txomintxo'k ez al-din askotan itai zorrotza negarrez eskatu? Ta ik ematen? Ez, noski. Zergatik? Maite unalako, ez den ala? Ire semetxoak etziñan ori usteko, baña, alaxe unan benetan.

- Bai, jauna, arrazoi du. Burugabe jokatu det, aitortzen det Beorrek dion guzia egia dala ba-dakit, ta beti sinistu izan det, baño neonek eztakit zer gertatzen zitzaidan. Etsai beltza ibilli da, noski baño, noskiago, ni galdu naiean. Jaungoiko errukitsuak barkatuko al-dit nere ausarkeria.

Ta apaiz jaunaren aurrera belaunikatu ta Zerurantz begiak jasoaz, zion damuz josirik:

- Barkatu, Jaun ona, nere ausarkeri aundia. Zeruan bezela lurrean ere, egin bedi zure naia. Zure mirabea besterik ez naiz: egin nerekin nai dezuna.

- Jaungoikoaren izenean barkatzen dizut dana. Jainkoaren pake santua zurekin bedi orain eta beti, -erantzun zion apaizak, abotsak dar-dar zegiola ta biotza danbaka zuela.

Eta tente jarri eta eskuak goruntz jasoaz, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bedein-kau zuan.

## IV

Joxemiel'ek iru semekin utzi zuan Joxepantoni. Sei urtekoa zarrena, amaika illabetekoa gazteena. Gurutze galanta jarri zion, ba, sor baldan gure Jaungoikoak. Ume aiek azi ta ezi, baserria lur jo gabe, aurrera eramateko bid-eak artu: orra, emakume batentzat naiko lan ta buruauste.

Baña, gure Joxepantoni etzan nolanaiko emakumea, buru argia zan, adoretzu ta trebea. Otoitzari ta lanari ekin zion, ta Jainko gure Jaunak; osatu zuan gañerakoa. Baserria, beintzat, gora zijoan, ta umeak, aitaren bildurrik gabe ere, inguruetako umerik onenak eta maitagarrienak ziran, ao-batez guziok ziotenez.

Berriro ezkontzeko era, eta era egokiak gero, izan zituan, baña gure Joxepantoni'k gai ontaz aspaldian erabaki sendoa arturik zeukan: bere biotza Jainkoarentzat eta semetxoentzat bakarrik izango zan andik aurrera. Joxemiel'ek Zerutik lagunduko zion.

Gipuzkoa'ko erri batean apaiz zeukan anaiak artu ta berekin eramán zion seme zarrena, eta beste anai bat, kalean bizi zana, etorri zitzaion baserri-lanetara-

ko. Pakean ta buruaste geiegirik gabe bizitzeko eran jarri zan, beintzat.

Gero, andik bost edo sei urtera, anai apaizarekin zegoan semeak, apaiz egin nai zuala-ta, kezka ta zalantzarik pranko sortu zitzaizkion gajoari, baño, tira... arena ere zuzendu zuan. Bigarrena, Joxe Erramon, zetorren mutilla, noski. Sendoa ta trinkoa, pake-tsua ta amaren esanetara josia, aita zanaren tajua bera omen zekarren lanerako. Onexek bai jasoko zuela baserria, jainkoak lagun!

Ta txikiena ere, Txomintxo, etzan makal-makala, sorgiña umea benetan. Aiek azitzean, orduan bai eroso biziko zala! Beti ametsetan amaren biotza! Gau ta egun bere aiekin amets gozoetan...!

Baña, askotan ametsak amets, eta usteak ustel...

Udako goiz eder bat zan. Artajorran ari zitzaizkionen gosaria antolatzen ari zala, Txomin txikiaren ateraldiak par-eragin zion. Umearen burutasuna izan ere...!

- Ama, -esan zion bat-batean, oetik jeiki ta ikusi zuan bezin laister-, amatxo, nik aitatxongana jun nai det.

-Ago ixilik, umea, -darantzuio amak-; ez al-dakik aitatxo Zeruan dagola? Ona ta zintxoa izaten ba'aiz



joango aiz Zerura, bestela, berriz, inpernura deabru beltzekin erretzera...

- Bai, bai, Zerura joan nai det... Aitatxongana juan nai det nik... zion bein eta berriz mutikoak.

Amak gosaria eraman ta etxeratu zanean, etzuan etxean arkitu mutikoa. Ots-egin ta erantzunik ez; nora joan ote da? Jo zuan baserri gañeko sagardira, ta Txomin'en zantzurik ez. Auzoko baserrietan gero galdatu, ta iñork mutillaren berririk ez. Joxepantoni'ren biotza kezka gogorretan goibeldu zan.

Gosaltzen ari ziranengana itzuli, ta zer gertatzen zan aditzera eman zien. Etziran asko estutu: umea agertuko zala bai, ta lasaitzeko esan zioten Joxepantoni'ri.

Baña, amaren biotza larriagotzen ari zan errukitu ziran azkenean danok, eta soroan pitxarrako botella-ardoa, ogi-pusketak eta okel-zatiak bertan laga, ta mutikoaren billa sakabanatu ziran.

Eguardian, etxe-aurreko baratzako osin edo putzu sakonean topatu zuten, azkenez, illotzik.

Etziran, alajaña, guziak gutxi arritu, Joxepantoni'k, negarrez urturik umearen goizeko ateraldiaren berri eman zienean.

Bost urteko umearen atarramentua izan ere...! Ametsetan aingerutxoen batek esan ote zion bart, gaur aitatzorengana Zerura joango zala? Eztakit: baña, umea Zeruan arkitzen dala bai, ta bere aita, munduan ezagutu etzuan bere aitatzo, antxe arkituko zuela ere, sinistu genezake.

## V

**Naigabe** ta zoritxarren-ondoren poza ta atsegiña ere giza biotzetan ixuritzen ba-daki Jaungoikoak. Orixe egin zuan Joxepantoni'ren biotzean. Gurutze astuna eraman-azi zion bizitzako zenbait urteetan: baña, amaren biotzak artu lezazken ezti-tantorik gozoenak ere, oparo ixuri zizkion. Gañera, zartzaro luze ta paketsua eman zion.

Patxi, bere seme zarrena, apaiz D. Francisco, ta gañera Gipuzkoa'ko erri aundi bateko Bikaio jaun egiña ikusteko añako poza ere, izan zuan, beintzat.

Joxe Erramon auzo erriko neska bikaiñ batekin ezkondu zan. Etzuan mutillak begi txarra izan: Joxepantoni'ri izan ziteken errañik onena, egokitu zitzaion. Egiteko aginduta ere, etzuan onagorik izango. Langi-

Ilea, apala, garbia... Baserri batean, bear bezelakoa: ez etxean sartu-orduko, danak mendean artu bear ditun alakoa, ez. Bere seme-alabakin, ama: ta ama-marekin, alaba. Senarrarentzat, berriz ziñez emazte maitagarria.

Orra, nola bizi zan gure Joxepantoni Jau nak eman zion zartzaro luzean. Bizitza paketsuagorik eta zoriontsuagorik ez liteke lurrean. Zer nai ta ua zeukala esan nezake, etxeko guztiak berari kutixi oro betetzeko beti gertu zeuzkan-eta.

Nik Joxepantoni ezagütu nuanean, larogei urtetik gorako amona lodi ta motz bat zan. Ba-zuan gorraize pixka bat, begiak zerbait lausotu rik zeuzkan, eta ibiltzeko ere etzegoan ain ariña. Baña, urte-sail ori bizkar-gañean dauzkagunean, guk ere zerbait orrelako, izango degu, noski baño noskiago.

Ondo bizi zan amonatxoa, beti sukaldean exerita, seaskari eragiñ eta eragiñ, bi edo iru ume koskor inguruan zitula. Alaxen arkitzen nuan, beintzat, nik, baserri artan sartzen nintzanetan.

Bein esan ere bai:

- Joxepantoni, beti seaskari eragiñaz arkitzen zaitut: ainbeste eragiñ gabe ere, lo artuko du bai aurrak.

- Ez beza uste, -erantzun zidan-, eragiten ezpa-  
zaie, laister negarrari eman oi diote. Orrela oitu ditut,  
eta atsegiñtxo auxe ematen segi bearko det, onezke-  
ro. Zaartu naiz ta ez naiz beste ezertarako gauza,  
gañera.

- Ez diezu, alajaña, zure seme ta erraiñari mesede  
txikia egiten. Jainkoak kontuan artuko dizu. Ez uste,  
ba, Joxepantoni, munduan alperrik zaudenik, zerurako  
irabazi ugariak irabazten ari zera bitartean.

- Baita, Purgatoriyorako egurra ere ugari... Eztaki  
beorrek zenbat erneazi ematen dizkidaten ume aukerak:  
nere onetatik ateratzen naute, ta utsegite asko egiten  
ditut nere aukerekin. Ezin eraman pazientziz, beti biurri-  
kerian ari baitira, -eta aurrean arrastaka ta alkarren  
gañean zebiltzan iru ume koskor musu gorri erakutsi  
zizkian beatzez eskua luzaturik.

Iruai ots-egin zien beregana, txukundu zitun eta  
bere alboan jarri zituan apal eta ixilik... Orduan jardun  
nion

- Andre Joxepantoni, utsegite txikirik ere gabe,  
eztago emen lurrean bizitzerik. Argatik errez barkatu  
ere oi dizkigu Jainkoak. Baña, esaidazu: zenbat ume  
azi dituzu seaska ortan?

- Nereaz gañera, amargarrena izango det onekin. Danak bat bestearen ondoren neonek azi ditut, eta «Aitaren» egiten eta «Aita gurea» esaten neuk erakutsi diet. Gogoratuko al-dira nitzaz, iltzen naizenean!

Oraindik beste bost urte egin zituan lurrean, eta egunetik egunera aurrerago arkitzen nuan santutasunean. Arrituta uste niñuan aren Jaungoikoarekiko batasunak; Jainkoarekin maite-besarka estu batean bizi zala bai-zirudian. Aren izen santua itzetik ortzera ateratzen zuan, baña, bai begirunez eta lots-itzaiez...!

Gertaera guzietan Jainkoaren eskua ikusten zuan eta Bere aurrean bizi zala etzitzaion iñoiz aztutzen. Eriotzak etzion batere bildurrik eta kezkarik ematen, eta gertu zegoan, Jainkoak nai zuanean Beregana joateko. Berez, berak lenbailen nai zuan, baña ontan ere, Jaunaren naia egitea zan bere naia.

Amaika bider berekin mintzatu-ostean, nere etxera netorrela esan oi nuan nere baitan:

- Oiek gauzak ikusi bear ditugu beste bizitzan! Eskola pixka bat ba-degula-ta, zerbait geralakoan, gabiltz arro-arro; eta eskola gabeko amonatxoa au, guziok baño geiago da Jaunaren aurrean, ta zerbait gerala uste degunok baño gorago arkituko da Zeruan. Lurreko gauzakin lilluraturik gabiltza ta milla aldetara

sakabanaturik dabilkigu biotza. Joxepantoni'k ez: bere gogo ta nai guziak Jainkoagana zuzenduta dauzka, ta beretzat ez da munduan gauzarik lilluragarriagorik Jaungoikoa baño. Aita bezela maite du, ume txikiak bere aitatxo bezelaxe, ta bere uste osoa Argan ipiñita bizi da, Ark nai duan-arte eta Beregana deitzen duan-bitartean.

Begiak geiago ta geiago lausotzen ari zitzaizkion: azkenean, gauzen errañuak besterik etzitan ikusten, baña animaren begiak orduan ta argigo ta bizigo sinis-meneko egi sakonenak ikusteko jarri zitzaizkion. Gorputzeko belarriak gogortuta, erdi-itxirik zeuzkan azken-erako: Jainkoaren itzak entzuteko, ordea, iñoiz baño egokigo jarri zitzaizkiola esango nuke.

Joxepantoni'ren eriotza lozorro eztitsuan eroritze-ra bezela izan zan: paketsua, oñazerik gabea, Jesus'en besoetan burua makurturik illotzik gelditzea.

Urtez bezela, egintza onez ere aberats, Zeruko Amari ta Jesus-Biotz errukiarrari otoi laburrak esaten ari zala, bere seme apaiza alboan zuela, etxeko ta auzokoaz inguraturik, azken-asnasa eman zuan.

Geroztik urteak joan dira baña ez da erritik aienatu Joxepantoni'ren izen onaren usai gozoa. Oraiñdik ere erritarren biotzetan, aren irudi oroigarriak bizi-

bizirik dirau. Ez al da iñoiz ilko...! Gaurko gure gazteak, euskaldun-fededun zaar aien ikasbide zerutarak, jarrai-bidetzat artu bearrean daude, iñoiz baño geiago zerurako bizi nai ba'dute, beintzat.